

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

240/2021 Foru Agindua, irailaren 10ekoa, interes publikoko adierazten diona Arratzua-Ubarrundia udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Arroiabeko 3 poligonoko 1.264 lursailean, gune zoologikoa (txakurtegia) egiteko proiektuari

Rubén Batanete Ginel Arratzua-Ubarrundiako Udalari lizentzia eskatu dio Arroiabe herriko 3 poligonoko 1.264 lurzatian, udalerriri hartako lurzoru urbanizaezinean, gune zoologiko bat (txakurtegia) jartzeko jarduera sailkaturako.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean Gune Zoologikoen Erregistroan baimentzeko eta inskribatzeko aurkeztutako proiektua dago, eta bertan adierazten da instalazioa «20 metro koadro baino gehiagoko txakurtegiak» kategoriari dagokiola, «Rottweiler de Batanen» izenarekin. Zentroaren helburua da arrazako txakurrak antzutu gabeko aleekin hautatu eta hobetzeko programa gauzatzea eta mantentzea, Nazioarteko Txakurren Federazioaren, Espainiako Real Sociedad Caninaren eta Espainiako Rottweiler Klubaren kirol lehiaketetan eta morfologia erakustaldietan parte hartzeko xedearekin. Sustatzailea «de Batanen RSCE 6.377» zenbakiaren aurrizkiaren jabea da. Aurkeztutako proiektuan jasota dago sustatzaileak hiru ale dituela gaur egun.

Instalazioari dagokionez, jasota dago lurzatiak 2.220 metro koadroko azalera duela guztira, eta horietatik 1.077 metro koadro erabiltzen direla txakurtegia kokatzeko eta jolas parkerako.

Udal arkitektoak emandako txostenean adierazten da lurzatiak lurzoru urbanizaezinean dagoela eta «J.25 zaindutako zonak: nekazaritza eta abeltzaintza interesekoak» gisa kalifikatuta dagoela. Bat etorri udalerriko hiri antolamendurako plan orokorrean jasotakoarekin, 1.6.1.1 artikuluan («Babes bereziko J.1 eta babestutako J.2 landa eremuetan kalifikazio orokorraren bidez zuzenean baimendu daitezkeen erabilera sailkapen orokorra»), 1.f) atalean, abeltzaintza jardura bereziak jasotzen dira erabilera gisa, eta horien artean berariaz adierazten dira gune zoologikoak.

Artikulu beraren 2 puntuan onura publikoko edo interes sozialeko eraikuntzak eta instalazioak jasotzen dira, hala nola beren izaera eta ezaugarriengatik landa ingurunean kokatu behar diren zerbitzuak ematera bideratutakoak, baldin eta sistema orokor ez badira eta onura publikokotzat edo interes sozialekotzat jotzen badira, bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 28.5.a artikuluan eta Premiako Neurri buruzko 105/2008 Dekretuaren 4.2 artikuluan aurreikusitakoarekin.

Proiektuaren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. 2021eko uztailaren 27an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak jakinarazi zuen proiektua ez dagoela ingurumen ebaluazioaren prozeduraren mende.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta sail horren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzorian, «salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira».

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru aldundiak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Uztailaren 27ko 205/2021 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta hura hogeit egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Espedientea, hain zuzen ere, 2021eko abuztuaren 9ko ALHAOn (89. zenbakia) argitaratu zen, eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu hartarako eman zen epean.

Bigarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, nekazaritza eta basogintzako lurralde plan sektoriala aplikatu behar da. Plan horren III. kapituluak 5. atalean («Lurzoruaren erabilerak eta eraikuntza erabilerari lotutako jarduerak»), honako hau ezartzen da 42. artikuluan: «erabilera publikoko edo gizarte intereseko eraikin eta instalazioak.

1. Komunitate-ekipamendu publiko edo pribatuarentako eraikuntzak eta instalazioak: ematen dituzten zerbitzuak, beren izaera eta ezaugarriengatik, nahitaez landa ingurunean kokatu behar dira, betiere aurrez erabilgarritasun publikoa edo gizarte interesa dutela adierazi bada.

2. Honako modalitate hauek sartzen dira hemen:

a. Gune zoologikoak: Establezimendu horien jarduera nagusiak Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuari lotuta daude; dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzkoa da. Erabilera hau soil-soilik kontuan hartzen da erabileraren jarduera nagusiek landa-lurrean kokatu beharra justifikatzen badute (animaliak sendatzeko zentroak, [...], txakurtegiak, [...]). Beraz, hiri-lurzorian jar daitezkeenak (txori-dendak, animaliak saltzekoak, eta abar) ez dira sartzen erabilera honetan [...].

444/1994 Dekretua Gune Zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuak indargabetu zuen, zeina Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 19. artikulua aplikatuz eman baitzen (1993ko azaroaren 15eko EHAA, 220. zk.), eta lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoan dauden etxeko animaliak, etxekotuak eta basati gatibuak babesteko arauak ezarri zituen. Zioen azalpenak dioenez, 6/1993 Legea animaliak errespetatu, defendatu eta babesteko oinarriak aitortzeko kontzientziazio ekimenaren testuinguruan eman zen, eta horrek lege esparru egokia aldarrikatzea eskatzen zuen, arlo horretako nazioarteko hitzarmen eta itunekin bat etorritik.

81/2006 Dekretuak, 2. artikuluan, honako hau ezartzen du: «gune zoologikoa da animaliak edukitzeko, mantentzeko, hazteko eta/edo saltzeko dauden zentro, establezimendu eta instalazio guztiak, berdin dio hori gunearen jarduera nagusia den eta merkataritzako helburuak dituen edo ez». Eta, zehazki, honako hau sartzen du nukleo zoologikoaren definizioan: «Lagun egiteko etxe-abereak dituzten guneak [...] 1) Urtebetetik gorako 10 txakur edo gehiago dituzten txakurtegiak eta/edo 20 m²-tik gorako azalerako instalazioak dituzten horiek. [...] 4) Txakurrak hezteko eskolak, betiere, animaliak edukitzeko instalazioak badituzte».

6/1993 Legearen II. tituluko hirugarren kapituluak honako hauek arautzen ditu: «haztegiak, salmentarako tokiak eta animaliak aldi batez edukitzeko tokiak», eta hainbat baldintza orokor jasotzen ditu, animaliak hazteko edo saltzeko establezimenduek, egoitzek, animaliak hezteko zentroek eta animaliak edukitzeko dauden bestelako instalazioek bete behar dituztenak.

Horregatik guztiagatik, interes publikoa proiektuaren izaerak ematen du, xede baitu arrazako txakurrak hautatu eta hobetzeko gune zoologikoa ezartzea. Halaber, justifikatuta dago instalazioa kokaleku zehatz horretan kokatzea, azpiegiturak berak dituen ezaugarriak direla eta.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatuak proposatuta, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularren jardunean, haren titularren gaixotasunagatik, eta diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa adieraztea, bat etorritz ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin, Arratzua-Ubarrundia udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Arroiabeko 3 poligonoko 1.264 lursailean, gune zoologikoa (txakurtegia) egiteko proiektuari, zeina Ruben Batanete sustatu baitu.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jarri ahalko zaio egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 10a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko jarduneko foru diputatua
M^a PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO